

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/021

Izenburua: EMAKUMEAK BABESTEKO PATRONATUKO PROBINTZIA BATZORDEA

Datak: 1944-1986

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 16 instalazio unitate

Sortzailea: EMAKUMEAK BABESTEKO PATRONATUKO PROBINTZIA BATZORDEA

Erakundearen historia:

Emakumearen Babeserako Patronatuaren aurrekaria emakumeen salerosketari aurre egiteko Errege Patronatua izan zen. Errege Patronatu hori Grazia eta Justizia Ministerioaren 1902ko uztailaren 11ko Errege Dekretuaren bidez sortu zen; 1904ko maiatzaren 30eko eta 1909ko apirilaren 15eko Errege Dekretuen bidez eraberritu zen eta 1931ko ekainaren 1eko Dekretuaren bidez desegin, II. Errepublikaren garaian. 1931ko irailaren 11ko Dekretuaren bidez berrantolatu zen, Emakumea Babesteko Patronatua izenarekin, harik eta, 1935eko ekainaren 25eko Dekretuaren bidez, Adingabeak Babesteko Kontseilu Gorenak hartu zituen arte haren eginkizunak. Patronatu hori berriz berrantolatu zen, Justizia Ministerioaren barruan, 1938ko martxoaren 12ko Dekretuaren eta 1941eko azaroaren 6ko Dekretuaren bidez. Honako eginkizun hauek zituen: emakumearen duintasun morala bultzatzea, batez ere gazteena; auzitegiek, agintariek eta tutoreek izendatzen zituzten emakume gazteak zaintzea, barneratzea eta artatzea; adingabeen trafikoarekin lotutako delitu-egitateak salatzea, Ministerio Fiskalaren esku-hartzea eskatuz; eta argitalpen edo forma plastikoek egindako delitu edo faltak jazartzea, bai eta objektu eta argitalpen pornografikoen zirkulazioa eragozteko neurriak proposatzea ere. 1941eko Dekretuak eskatu zuen probintzia bakoitzean Emakumea Babesteko Batzorde bat sortzea eta Patronatuak egoki iritzitako probintzietako hiriburu ez ziren hirietan Tokiko Batzorde bat eratzea. Justizia Ministerioaren 1942ko urriaren 23ko Aginduaren bidez sortu zen Patronatuko Iruñeko Probintzia Batzordea, Gobernadore Zibilararen lehendakaritzapean. 1952ko abenduaren 20ko Legearen bidez, gehiago zehaztu zen Emakumea Babesteko Patronatuaren antolaketa eta funtzionamendua. Hain zuzen, zehaztu ziren organo zentralen, probintziako en, eta tokiko en osaera eta funtzionamendua, araubide ekonomikoa eta haien eginkizun judizialak eta gobernukoak. Organo zentralak Nazio Batzordea eratu zuten eta probintzietan Probintzia Batzordeak eratu ziren, zeinak osoko bilkuran eta batzorde iraunkorrean biltzen ahalko baitziren. Berritasun gisa, judizialki jarduteko aukera sartu zen eta indartu egin zen gobernuaren agintaritzaren izaera. Hori dela eta, erakundea sendotu egin zen. 1985eko ekitaldian erakunde autonomo batzuk kentzea onartu zuen 1985eko Estatu Aurrekontuei buruzko 50/1984 Legeak; haien artean, Emakumea Babesteko Patronatua. Izan ere, autonomia erkidegoei eskualdatzeko prozesua hasita zegoen. Abuztuaren 1eko 1449/1985 Errege Dekretuaren bidez, Emakumearen Babeserako Patronatua iraungi zen, eta, urtebete geroago, urtarrilaren 24ko 227/1986 Errege Dekretuak arautu zuen Foru Komunitateari eskualdatzea emakumearen babesaren arloko Estatuaren eginkizunak eta zerbitzuak, bai eta, espezifikoki, Nafarroako Probintzia Batzordea ere.

Funtsaren antolamendua:

021.01. GOBERNUA

021.01.01 Batzordearen aktak

021.01. ADMINISTRAZIOA

021.02.01 Korrespondentzia

021.02.02 Langileen nominak

021.02.03 Kontuen espedienteak

021.02.04 Bankuko frogagiriak

021.02.05 Entregatze aktak, estatistikak eta inbentarioak

021.01. ZERBITZUAK

021.03.01 Kasuen erregistro orokorra

021.03.02 Amatasunari laguntzak

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.